

# EUSKARA EGITARAUAN

## EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA RAMÓN DE LA SOTAREN GOBERNU-EGITARAUAN (1917-1919)

### 1. GOBERNU ABERTZALE BATEN HASIERAKO MINTZALDIA (1917)

Egun on eta mila esker hona hurreratu zareten guztioi, batik bat, Sotaren etxekoei eta Sabino Arana Fundazioari, jardunaldi honetan parte hartzeko aukera ematearren. Aspaldikoa eta, era berean, hur-hurreko kezka izan da niretzat Ramón de la Sota zenaren lana Bizkaiko Foru Aldundian, 1917. urte hartan agintaritza lortu zuenetik, hain zuzen ere, duela ehun urte.

Betidanik ikusi izan dut Sotaren gobernu-egitaraua abertzaletasunetik eta euskalduntasunetik egindako aldaketa eta iraulia, bestek beste, Euskal Herrian une hartan abiatu zegoen prozesu bati buruz muzin egin gabe aurrerabidea eta bultzada eman zizkiona.

Aipatu egitaraua garatu zuen Sotak bere kargua hartzeko Bizkaiko Aldundiaren jauregian eginiko mintzaldi berezian, 1917. urteko maiatzaren 4an. Horra bada, mintzaldi eta diskurtso hura ardatz hartuta, egun niri jardunaldi honetan egokitu zaidana, alegia, orduko hura nola mamitu zen ehun urte geroago azaltzea eta gizarteratzea, guretzat ere, baliagarri eta onuragarri izan daitekeelakoan. Ikuspegi askotatik so egin dakioke mintzaldi horren testuari eta hala egingo dut neronek ere, jakinik, hori

bai, gaur hemen esaten ari garena ez dela besterik esan zitekeen osoaren zati bat baino.

Hortaz, gaingiroki bada ere, ekin diezaiodan gaiari eta laburrean irakur dezadan Sotak euskara eta euskal hizkuntzari buruz esan zuena mintzaldi hartan eta nola gauzatu zen, gerokoan, hasierako hura. Euskara lehene-tsitako gaia izan zuela ezin ukatu: «Hay en el País Vasco un movimiento que cuenta con las simpatías de todos los vascos. Me refiero á la labor que ciertos eruditos realizan para conservar y propagar el euskera. Nosotros, desde esta Corporación, debemos ayudar y ayudaremos dicho movimiento con todos los medios morales y materiales que estén á nuestro alcance»<sup>1</sup>.

Ahapaldi horretara biltzen da, hitz gutxitan, mezu biribila eta esanguratsua. Hainbatez, Sotak, abertzaletasunaren barruan jokatzeko agiantzak egiten baditu ere, egoki azpimarratzen du euskararen aldeotasun hori euskaldun guztiona dela, nork bere pentsamoldearen gainetikoa.

Hortxe dago, beharbada, Sotaren gobernuak gerora Bizkaiko Aldundian egingo dituen euskararen mesederako ahaleginen lehen

1. *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 114 zk., 1917. urteko maiatzaren 23koa.

## ANDRES M. URRUTIA

### NOTARIOA ETA EUSKALTZAINBURUA

esanahia, alegia, euskarak gizartean izan behar duen presentzia azpimarratzea eta hori Bizkaiko Aldundiaren eguneroko zereginetan islatzea, modu egoki batez.

Egin-eginean ere, euskara bera erakundetzea, instituzionalizatzea. Lan horretan hasia zen herria bere kautan eta helburua, ezinbestean, hortik zetorren, hau da, euskararen biziraupena bermatzea erakunde berezkoen bitartez.

Erakundetze horrek bazituen, bestalde, eite desberdinetako adierazpideak. Sota bere erranaldian, gorago aipatutakotik at, luze-zabal arduratzen da hezkuntzaz eta agerian uzten du sekulako kontraesana, eskolaren pedagogia eta Bizkaiko lurraldean bizi den egoera linguistikoa urruntzen zituena: «Todos sabéis que en la parte rural de Vizcaya hay una masa muy importante de población joven que no conoce el castellano, que habla simplemente el euskera; á esta juventud se le enseñan las primeras letras en castellano. Y resulta que como no entienden lo que se les enseña, salen de las Escuelas sin saber leer ni escribir; es decir, que han perdido el tiempo. Es preciso que a esta parte de la población se le enseñe en euskera...».

Hurrean ere, agerikoa da hitz horien bigarren gakoa, bigarren zutabea, hau da, euskara erakundetzea, bai, baina erakundetze hori jakituria hutsetik harago joan behar da, onuragarria era erabilgarria izan dadin herri xehearren euskaldunentzat. Hartara, euskaldunei euskaraz erakustea, hezkuntza prozesua euskararen bidez garatzea, betiere, gaztelania eta bestelako kulturak bazter utzi gabe.

Horretarako sortu ziren harrezkeroko *auzo-eskolak* (1919)<sup>2</sup>; horretarako ere, idatzi egin ziren testu liburuak euskaraz; horretarako, zer esanik ez, pedagogia berri baten aurrean jarri zen hezkuntza-sistema. *Auzo-eskola* horien gomutak, oraindik orain, bizkaitar askoren oroimenean daude; adin gehiagokoak bertan izan ziren ikasle; berriagoek, aldiz, gerra ostean eskola nazional erdaltzale bihurtuta ikusi dituzte eta osterantzeko pedagogia erdaltzalearen hartzaile izan dira.

Nolanahi ere, beti izan zuten eskola etxetik gertu, hor baitzegoen *auzo-eskolen* bestelako ezaugarria. Ezin ahaztu, gainera, auzolanean eginak izan ziren eskola horiek, auzoz auzo, bertako herritarren aldetik eta asmoa beti izan zen ikasleku hura ustezko ikasle herritarren haiengandik hur-hurrean egotea eta euren hizkuntzaren bidez hezkuntza-prozesua moldatzea.

## 2. GOBERNUAREN GOTORLEKUAN: ZEREGIN OFIZIALAK EUSKARAZ

Utz dezadan, alabaina, gertaera hori eta joan nadin euskararen nondik norakoak zehaztera, batik bat, Sotaren gobernuaren egitekoak zerrendatzera, euskarari dagokionez, Bizkaiko Aldundiaren barruan.

Bi puntu azpimarratu beharrekoak dira, nire ustez, gai honetan: Lehena, euskararen erabilera gai ofizialetan. Bigarrena, euskara bera doitzea eta gaitzea erabilera ofizial horietarako.

Bi-biotan erakutsi zuen Sotaren gobernuak modernotasun handia euskararekiko eta inoiz ez bazuen ere euskara bera Aldundiaren zeregin guztietarako hizkuntza ofizial gisa aldarrikatu, *de facto* erabilera ofizial hori bideratzeko osagaiak jarri zituen, ondoko garaietan aldarre bereko emaitzak ekarri zituenak.

### 2.1. ERABILERA OFIZIALETAN EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATZEA

Berehala hasi zen Sotaren gobernu bere neurriak hartzen. Hasteko, zenbait testu

2. Arrien Berrojaechevarria, G.: *Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia. (Escuela y Autonomía. 1898-1936)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia, 1987.

**BI-BIOTAN ERAKUTSI ZUEN  
SOTAREN GOBERNUAK  
MODERNOTASUN HANDIA  
EUSKARAREKIKO ETA INOIZ  
EZ BAZUEN ERE EUSKARA  
BERA ALDUNDIAREN ZEREGIN  
GUZTIETARAKO HIZKUNTZA  
OFIZIAL GISA ALDARRIKATU,  
DE FACTO ERABILERA OFIZIAL  
HORI BIDERATZEKO OSAGAIK  
JARRI ZITUEN, ONDOKO  
GARAIETAN ALDARTE BEREKO  
EMAITZAK EKARRI ZITUENAK**

ofizial euskaratzeko itzultzailea izendatu zuen, Juan Luis Biziola funtzionarioa, maiatzaren 13an<sup>3</sup>.

Horrekin batera ere, oso ugariak izan ziren Sotaren gobernu-aldian halako eztabaidak, indar politiko desberdinen artean, euskararen erabilerari buruz. Sozialistek zein erregezaleek sarri-sarri egin zioten aurka Sotaren gobernuaren egitarauari, batez ere, funtzionarioak izendatzeko orduan euskara aintzat hartzeari edota aurrekontuetan euskararen aldeko xedapenak ezartzeari buruz. Aurrerago esandakoaren adibide moduan, 1917. urteko abuztuaren 30ean Sotaren gobernuak hartutako erabakia: «Orregaitik erabagi dot Diputaziño-etxiaren iru oin edo pisuetan egon daitela bakotxian ordanantza euzkeldun bat, eta bere zeregina ixango da, zetan-edo-atan bertara datorran euzkeldunari lagundu, beronek egin arte Diputaziñora dakarren arazua»<sup>4</sup>.

3. Urrutia Badiola, A. M. (arg.): *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919). Gipuzkoa (1918-1923)*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia-Academia Vasca de Derecho, 2015, 16. or.

4. *Ibidem*, 81. or.

## 2.2. EUSKARA BERA DOITZEA ETA GAITZEA ZEREGIN OFIZIALETAN

Esanak esan, Sotaren gobernuak beste-lako urratsa ere eman zuen, aipatu Biziola zela eta. Izendatu eta berehala Aldundiaren agindua jaso zuen hark, Aldundiak berak herrietara bidaltzen zituen zirkular administratiboak gaztelaniatik euskarara itzultzeko. Laster ohartu zen Biziola, funtzionario eta itzultzaile zena, testu haiek konplexutasun handiko testuak zirela, maila linguistiko eta administratiboetan eta, horren ondorioz, ezin zuela bere lana edozein modutan egin.

Biziolak jakin bazekien hori eta horregatik egoki adierazi zituen ibilbide horren zailtasunak: «...quien someramente conozca el Euzkera, se dará cuenta inmediatamente de las dificultades que lleva consigo toda traducción. El Euzkera y el castellano son dos idiomas de estructura completamente distinta, con giros y modismos que en nada se parecen. Requiere, por tanto, además del conocimiento de ambos idiomas (sobre todo el Euzkera, pues en cuanto al castellano hay buenos diccionarios) un hábito prolongado de traducción, para no incurrir en el feo pecado de cubrir el castellano con ropaje euzkérico, destruyendo completamente la idiosincracia del Euzkera».

Hitz horiek, egun ere edozein itzultzailek sinatuko lituzkeenak, begien bistan jartzen dute halako parekotasuna, ehun urte lehenago, Aita Juan Antonio Uriarte fraide frantziskotarrak, XIX mendean burutu zuen Bizkaiko Batzar Nagusietako Agirien itzulpenarekin<sup>5</sup>. Bide beretik eta hari etengabe bati jarraituz, Sotaren gobernuak ondutako itzulpen juridiko-administratibo honek bidegintza egingo du gerogarrenean, 1937. urtean Euskadiko Lehendakariak moldatuko duenarekin<sup>6</sup>.

Ageri-agerikoa, beraz, lan eskerga, euskaraz emateko Bizkaiko Aldundiaren erreallitate juridiko-administratiboa. Horretan ere, zer esanik ez, helburua argi finkaturik, euskara orduko gizartearen premietara egokitzeo ahaleginetan.

5. Urrutia Badiola, A. M. (zuz.): *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko txestuen bilduma eta azterketa*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003.

6. *Diario Oficial del País Vasco / Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*. (Introducción de Jesús María de Leizaola). Durango: Leopoldo Zugaza, 1977, facsímil de la edición de 1936-1937, tomos I, II y III.

## 2.3. EUSKARA ERAKUNDETZEA: EUSKO IKASKUNTZA ETA EUSKALTZAINDIA

Ezaguna da Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren historia, bitzuo loturik baitaude Sotaren gobernuarekin. Oraingo honetan, haatik, berba laburretan azaldu behar da Sotaren gobernuak jokatu zuen moldea, euskararen akademia baten sorreran.

Elgezabal eta Landaburu, Sotarekin batera Bizkaiko Aldundiaren ahaldu abertzaleek, 1918. urteko urtarrilaren 12an aurkeztu zuten harako proposamena, Aldundiaren Osoko Bilkuran eztabaidatua izan zedin. Proposamena euskaraz zetorren eta argi azaltzen zuen euskararen etorkizunearako behar-beharrezkoa zela erakunde baten sorrera: «Lenen-lenen ba, bidia atondu bea, beragandik ondo ibilteko ta bera zuzen erabilteko. Bial-añeko notiñen Bazkun bat, aldiak bata bestiak azteñtu ta aldan ondoen erabagiteko; utsunak bete; itzen ikuñpena eta esanguria tinkotu-idazkera bat jañ; izkelgiak bata be ezetsi barik eta alkañe geitu ta aberastuta baino, orobatu; idaztiyak bildu, eta azkenez, izkera garbi, makezbako jakintz-lanetarako egoki ta erabilkoña, eusko-erñen gairia, emon dagizkun»<sup>7</sup>.

Ildo beretik, antolatzaileek ezin argiago ikusten zituzten erakunde horren eginkizunak: «1.n Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Napañaren Diputazio eta Parantzeko euskeldunen ordezkariyen keriz ta babespian, irasten da Bazkunde bat ... .. ixenaz, euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzeko. Bere erabakiyak, agintzalen sorospen eta almena eltzen danaña, beañ-etsiko dira; eta agintzale oyek ukutzen daben euzkel-gaiz oroetan beragana zuzenduko dira»; kideak: «...Euskadi'ko erki ta izkelgi gustiyen ordezkariyak» eta izenak ere bai: «...Lhande, Campion, Azkue, Agirñe, Arñandiaga, Bustintza, Etxalañ, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkelzale-Bazkunako bat, Eguzkitza, López Mendizabal, Urñixio (Julio), Agerñe (Iruñakua), eta Bayona'ko «Eskualduna»ren ordezkari bat. Jaun orek gerñtuko dabe Bazkundien Araudiya». Bestalde, bileren maiztasuna ere hilerokoa

eta berori antolatzeko diru-laguntzak, beste agintariyen artean, Bizkaiko Foru Aldundiarenak.

Halaxe onetsi zen eta hori izan zen, izatez, 1918. urteko urrian, Oñatiko Biltzarraren barruan eztabaidaturikoaren oinarria, Euskaltzaindia eratzea eta moldatzeari dagokionez: «6. La sección acuerda crear un organismo de investigación y tutela del euskera, dividido en las dos siguientes secciones, separadas y distintas. a) *Sección de investigaciones*, cuyo objeto es el estudio de todos los problemas de lingüística euskérica en todas sus ramas. b) *Labor práctica*, cuyo objeto será la tutela y restauración del idioma vasco en todos los órdenes sociales, publicaciones, ayuda a los establecimientos docentes que implanten la enseñanza euskérica, oficinas de traducciones, Consultorio de Corporaciones, etc.»<sup>8</sup>.

**HORREKIN BATERA ERE,  
OSO UGARIAK IZAN ZIREN  
SOTAREN GOBERNU-ALDIAN  
HALAKO EZTABAIDAK, INDIAR  
POLITIKO DESBERDINEN  
ARTEAN, EUSKARAREN  
ERABILERARI BURUZ.  
SOZIALISTEK ZEIN  
ERREGEZALEEK SARRI-SARRI  
EGIN ZIOTEN AURKA SOTAREN  
GOBERNUAREN EGITARAUARI,  
BATEZ ERE, FUNTZIONARIOAK  
IZENDATZEKO ORDUAN  
EUSKARA AINTZAT HARTZEARI  
EDOTA AURREKONTUETAN  
EUSKARAREN ALDEKO  
XEDAPENAK EZARTZEARI  
BURUZ**

7. *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 10. zk., 1919. urteko urtarrilaren 14koa. Orobat, *Euskera. Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak, 1919-1920*. 1'ko urtea - 1n zenbakia. Donostia, 1920, 37-41. orr.

8. *Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones vascas*. Bilbao: Bilbaina de Artes Gráficas. Juan. J. Rochelt, 1919.

**EUSKARAREN ESPARRUAN,  
SOTAREN GOBERNUAK  
PROPOSATU EZ EZIK,  
BURUTU ERE EGIN ZITUEN  
EUSKARA ETA EUSKAL  
KULTURAREN ALDEKO  
ERAKUNDETZE SENDOAK,  
EUSKO IKASKUNTZA ETA  
EUSKALTZAINDIA SORTU  
ZITUENA ETA GAUR ARTE  
IRAUN DUENA, NAHIZ  
ETA 1919. URTEAN BESTE  
ESKUETARA IGARO BIZKAIKO  
FORU ALDUNDIAREN  
GOBERNUA**

Hori ere, Sotaren egitasmoaren barruan zegoen agindua zen eta haren gobernuak bete egin zuen, aurrerabide sendo baten ildotik. Esan gabe doa garai haietako erakundetzeak egunotan ere irauten duela eta adierazgarria ere badela, gizarte zibilak euskararen alorrean izan behar duen partaidetzaren seinale eta lekuko.

### 3. EUSKAL KULTURA AURRERA EGITEKO BIDEAN

Bada Sotaren gobernuaren egitarauan euskal kulturarekiko arrangura berezia. Horrek erakarriko du gaurko gizartean bizirik dirauten kultura erakundeen sorrera: Museo Etnografikoa, Orkestra Sinfonikoa... Orogen gainera, hala ere, hezkuntza, euskara eta euskal kultura estekatu nahian jardun zuen Sotaren gobernuak etengabe. Horretarako sortu zuen harako *Junta de Instrucción Pública de la Diputación de Vizcaya* (1917. urteko abenduaren 5ean). Gero, 1918. urteko maiatzaren 21ean ezarri ziren batzorde horren ahalmenak eta bereziki

aipatzeko modukoak dira honako hauek: «j) Igualmente será de la incumbencia de esta Junta, no sólo procurar la conservación de la lengua vasca (euzkera), sino también hacer poniendo en práctica para conseguirlo los medios que estime más apropiados, que esta lengua se vigorice y su conocimiento y su uso se extienda por toda Bizcaya sin desatender, por eso no obstante la enseñanza de la lengua castellana».

Kideak, bistan da, orduko euskalgintza-aren izen esanguratsuak: Rotaetxe, Landáburu, de la Torre, Urrengoechea, Ibarra, Tierra, Garay, Elguezabal eta Eguileor eta Eduardo de Landeta, Ebaristo Bustinza, J.B.Eguzkitza, Federico Belausteguigoita eta Alfredo Acebal<sup>9</sup>.

Ezin baztertzea da *auzo-eskolen* sorreran *Junta de Instrucción Pública* delakoaren ekintza, hain juxtu ere, 1920. urtean abian jarri zena, Gallano foru ahaldunaren proposamenez<sup>10</sup>.

### 4. ALDI BATEN LEKUKOTZA

Aipagarria da, esandakoaren erakusle, Jean Etchepare, euskal idazle eta Aldudeko medikuak, 1920. urtean Bilbora egin zuen bidaiari. Sortu berria zen Euskaltzaindia erakundea ezagutzera zetorren, Azkue euskaltzainburuarekin hitz egiteko asmotan. Etorri ere, Ipar Euskal Herriko euskaltzaitasunetik zetorren hura, hau da, giro arras desberdin batetik.

Hasteko, Bilbok berak harritu zuen, bere ekimen eta jardunean: «Hau bakarrik nerabilan ene baitan: ez nuela ordu artio ikusi Eskual-herrian halako hiri-ingurunetik. Nihun ez hain bertze lantegi, nihun halako esku-lanik; nihun ere ez, lurraren erraieran, daigun mendeari doakon baitezpadakoagorik. Obren araberako argiak bazituzketela hango gizonek, nindagon atseginekin. Adimenduz ala jakitatez Eskual-herriko hiri lehena behar zen izan Bilbao»<sup>11</sup>.

Hasian hasi, ohargarria da, baita ere, Azkue lehen euskaltzainburuarekin izan zuen solasa: «Hainbertzenarekin ate bat idekitzen da, eta agertzen zaut, eskua zabalik eta

9. *Ibidem*, 136. or.

10. *Ibidem*, 139. or.

11. Etchepare, J.: *Eskualzainburu (1920-ean agertua)*. Baiona: Herria, 1965, 8 or.

irria ezpainetan, gizon gazte larri eder bat. agur, eta agur, elgarren berri galde, nik gero berehala ene mezua, eta jartzen gira adis-kide zahar batzu bezala, biak, gure arbasoen mintzaiari mintzo. Ene atsegina! Hogoi-ta-lau ordu bazituen Bilbaon nintzala, eta aditurik ez nuen oraino eskuara hitza bakar bat!...». Aurrekoaren ondorioz, Bilbon aurkitu zuen ekinaz miretsirik joan zen Etxepare: «Bilbaotik jin nintzan gibelerat egun hartan berean, elektrik hari ezin hautsizko bat bezala loturik jarraitzen zitzautala urrundu arau...»<sup>12</sup>.

## 5. LABUR ZURREAN

Aurreko horiek argi erakusten dute, euskarari eta euskal kulturari dagokienez, Sotaren lehendakaritzak -hala deitu zion berak bere karguari<sup>13</sup>- eta horren gobernuak arlo horietan ekarri zituen berrikuntzak, euskal abertzaletasunaren bultzadaz. Beraz, laburbilduz honetara bil daitezke Sotaren gobernuak zertu zituenak:

1. Euskararen esparruan, Sotaren gobernuak proposatu ez ezik, burutu ere egin zituen euskara eta euskal kulturaren aldeko erakundetze sendoak, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zituen eta gaur arte iraun duena, nahiz eta 1919. urtean beste eskuetara igaro Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernuak.

2. Erakundetze horrek, euskararen alde-tik ekarri zuen euskara bera Euskal Herrian zin-zinezko lehen egitarau soziolinguistikoa bat abian jartzea botere gune publiko bate-tik, euskararen normalizaziorako bidean. Alde batetik, euskararen estatusa garatuz eta euskarari presentzia emanez Foru Aldundiaren egitekoetan, barne ibilbidean zein herritarre-kiko harremanetan. Bestetik, euskara bera gaitzeko eta doitzeko bidea zabaldu zuen, funtzio administratiboetarako euskara landu proposatuz, itzulpenaren bidez eta euskararen ezaugarriak gordez.

3. Sotaren bultzadapean erakunde berriak sortu ziren euskararen eta kulturaren alorrean azpiegiturak eratuz eta garatuz, esparru horietan esanguratsuak gertatu

12. Ibidem.

13. Urrutia Badiola, A. M. (arg.): *Euskara Foru Aldundien zirkularretan... op. cit.*, 81. or.

**ERAKUNDETZE HORREK,  
EUSKARAREN ALDETIK  
EKARRI ZUEN EUSKARA  
BERA EUSKAL HERRIAN  
ZIN-ZINEZKO LEHEN  
EGITARAU SOZIOLINGUISTIKO  
BAT ABIAN JARTZEA  
BOTERE GUNE PUBLIKO  
BATETIK, EUSKARAREN  
NORMALIZAZIORAKO BIDEAN**

zirenak, molde garaikide batean eta eiterik ziurrenean bermatzeko alor horien etorkizuna.

Gatozen bukatzera. Hasieran esan dut hur-hurreko kezka nuela gai honetan. Izan ere, halaxe da eta horrexegatik gogoratu behar dut oraingoan Aurora Badiola Arroita nire izekoa, *auzo-eskoletako* maistra izan zena eta beti aldeztu eta goraiatu zuena Sota agintaldiko Aldundiaren lana. Gerra ondoko urte latzak ekarri zizkion goratze horrek zalantzarik gabe, beste askoren modura, berrikitan gogoratu zaigunez<sup>14</sup>.

Ohore eta laudorio, beraz, Sota eta bere gobernuari eta engaiamendu fermua, haien hasitako bideari guztion artean segida emateko, euskara eta euskal kulturaren mesederako.

14. Ipiña Bidaurrezaga, A.: *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: fusilamientos y depuración (1936-1976)*. Arre (Navarra): Pamiela, 2017, 190-217 eta 301. orr.



